

ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2015ko otsailaren 02a. 8:30.

ASTELEHENA (2015/02/02)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da; gauean estalita geratuko da. Goizean goiz prezipitazio txikia egongo du. Goizean eta eguerdian atertzera egingo du. Arratsaldean prezipitazio txikia, eta gauean ertaina, bereziki azken orduetan. Elur-kota 600-800 m inguruan egongo da goizean goiz, eguerdian 1000 m-ra igoko da, eta arratsaldean 1000-1200 m-ra. Mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan; hego-mendebaldekoa nagusituko da, eta gauean ipar-mendebaldekoa. Temperatura maximoak nahikoa edo nabarmen igoko dira. Izotz txikia egingo du mendi inguruetan.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	11
Bilbao	11
Gasteiz	8
Arrasate	9

ASTEARTEA (2015/02/03)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Goizaldean eta goizean-goiz prezipitazio txiki-ertaina egingo du. Gainerako orduetan prezipitazio txikia han-hemenka. Noizean behin trumoi-ekaitzak izateko eta txingorra egiteko probabilitatea handia da. Elur-kota goizaldean 500 m-ra jaitsiko da; eguerditik aurrera 300-400 m-ra. Iparraldeko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogorrekin goizaldean. Arratsaldean hego-mendebaldera aldatuko da, eta egun amaieran ipar-osagaira. Temperatura minimoetan aldaketarik. Temperatura maximoak gutxi edo nahikoa jaitsiko dira. Barnealdean izotz txikia egingo du eta mendi inguruetan handia.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	3	8
Bilbao	4	9
Gasteiz	0	5
Arrasate	1	6

ASTEAZKENA (2015/02/04)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu, sarriago kantauri isurialdean, bereziki mendebaldean. Trumoi-ekaitzak izango dira eta txingorra egingo du, batez ere kantauri isurialdean. Elur-kota 400 m-ra egongo da. Goizetik aurrera 100 m inguruan egongo da, eta noizean behin itsasmailan, bereziki ekialdean. Ipar/ipar-ekialdeko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin; oso gogorrekin kostaldean eta mendi inguruetan. Temperatura gutxi edo nahikoa jaitsiko da. Barnealdean izotz txikia egingo du, handia mendi inguruetan.

OSTEGUNA (2015/02/05)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Zaparrada txiki-ertainak botako ditu; sarriago kantauri isurialdean goizaldean eta gauean. Trumoi-ekaitzak izango dira eta txingorra egingo du, batez ere kantauri isurialdean. Elur-kota 100 m-ra egongo da, noizbehinka itsasmailan, bereziki ekialdean. Iparraldeko haize bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin kostaldean eta mendi inguruetan. Temperaturan aldaketarik ez. Barnealdean izotz txikia egingo du; Araban eta mendi inguruetan handia.